

# ikusentzunezkoak

## UZTAILAK 6

### **IZANIK. 2020. Zuzeneko Film-a** [30 minutu]

Fitxa teknikoa: Grama Kolektiboa Kultur Elkartea


Egileak: Blanca Ortiga, Jatsu Argarate, Maialen Belaustegi.

Zuzeneko soinua

### **SINOPSISIA**

Izanik, artxiboko irudietatik zein unean sortutako etatik abiatuz ,zuzenean eraikitzen den film bat da. Gailu analogiko eta digitzalez osaturiko instalazio baten bidez ikus-entzunezko paisaia esperimental hedatu bat aktibatzen du. Ikus-entzunezko ondaretik berreskuratutako irudiak zein gaur egungo kultura bisualetik datozenen arteko elkarrizketa aktibatzen du Izanik-ek. Gure oroitzapenen erregistroaren inguruko hausnarketa proposatzen du, memoria individual zein biografikoa larruazal kolektiboarekin zein modutan ehuntzen den aztertuz.

<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/eitb-kultura/erreportajeak/bideoak/oso/7599877/bideoa-izanik-zuzeneko-filma>



# ikusentzunezkoak

## Diaporamak. 2021. FLORINES 14:30 taldea [30 minutu]

Egileak:

Irantzu Barrio

Udaberrian Petrikor

Alberto Cimarro

Amagoia Arana


Txema Sheen

Rafael Ramirez-Escudero

Santi Laespada

Florines 14:30 taldea Bilboko Black Kamera argazkigintza eskolaren bueltan osatutako lagun taldea da. Ikastaroak egiten elkar ezagutu eta urteak joan urteak etorri harremanetan jarraitu dute, elkartzen eta esperientziak partekatzen.

Ikusiko ditugun diaporametan askotariko gaiak jorratu dituzte, nork berea. Lan batzuk pandemia aurretikoak dira eta beste batzuk pandemia betean egin dira.



# ikusentzunezkoak

## UZTAILAK 7

### **AURRERA EGIN BADUGU . 2020. Dokumentala. [47 minutu]**

[JBA] Jatorrizko bertsioa azpituluekin.

Ekoizleak: Jaizkibel Konpainia, Hiru Damatxo eta OMglobal

Zuzendaria: Julen Hernandez Esnaola

**Solasaldia: Ana Mari Aristondo, Oihana Etxebarrieta eta Elisabeth Olaskoagarekin.**

### **SINOPSISIA**

Alardearen afera oinarri gisa hartuta, *Aurrera egin badugu* izeneko pieza dokumentala aurkeztu du Hondarribiko Jaizkibel Konpainiak. Elkarrizketa formatuko solasaldiak dira nagusi Julen Hernandez Esnaola kazetariak zuzendutako lan honetan.

«Aurrera egin badugu urte hauetan, berdintasunaren aldeko borrokalarietara esker izan da», azaldu dute konpainiako kideek. Ekarreengandik ikasi eta elkar babestea izan da urteetan luzatu den gatazka honi aurre egiteko bilatu duten modua eta, hain zuzen, bide hori guztia biltzen saiatu dira dokumentalean. Hausnarketarako tresna bai, baina, horrez gain, urteetan bidelagun izan dituzten horietara eskainitako aitortza izatea bilatu dute.

Hala, konpainiako kide diren Arantxa Urretabizkaia, Jaime Altuna eta Oihana Etxebarrieta kapitaina bera dira protagonistak. Garbiñe Biurrun epailea, Kattalin Miner kazetaria eta Itziar Ituño aktorea izango dituzte parean, eta elkarrizketa formatuko solasaldien bitartez, ikuspuntu zabal, askotarikoak eta desberdinak eskainiko dituzte. Julen Hernandez Esnaolak egin ditu zuzendari lanak. <https://www.youtube.com/watch?v=x9FGWVqILEk>



# ikusentzunezkoak

## UZTAILAK 8

"POST-". 2021. Bertso Trama . [60 minutu]

**Bertsolariak** : Eli Pagola, Amaia Iturriotz, Maider Arregi eta Jokin Bergara

### SINOPSISIA

Post-belaunaldia gara, **Egin** itxi zutenean edo milurteko berrian sartu ginenean ezer ulertu ez zuena. Umetan, gurasoen kotxean, entzun genuen "gu gazteok gaur gabiltza mundu galdu honetan". Nerabezaro hasieran kantatu genuen "ez gara amestu genuena/ behinola garagardotan". Nerabezaro bukaeran "Euskal Herria batzen du soilik/ elkar ezin ikusiak". Hasi aurretik genekien galtzen.

Betiko ziren gauzak, bat-batean, ez dira. Ez dugu puskatzen ez diren garbigailuetan sinesten. Puskatu baino lehen, aldatu. Aspertu baino lehen, aldatu. Konpresak, jertseak, kantuak, gorputzak, etxeak. Erabili eta bota.

Botereari tu eginez, ikastolak eta euskaltegiak martxan jarri zituzten formazio baino borondate gehiagoko familia eta irakasleen ekina jaso dugunok burokraziak maneatuta gabiltza. Ezer egiteko nor garela dioten tituluen bila.

Post-moderno, post-gatazka, post-bertso arokoak gara gu, eta betaurreko horietatik begiratuko diogu munduari. Beti etortzen ari den baina sekula lur hartzen ez duen belaunaldiaren azaletik.



Arrate Kultur Elkarte